

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa baten funtsezko baliabideak lau talde ezberdinetan banatzen dira; baliabide fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak.

Enpresa baten baliabide fisikoak eguneroko jarduerak eta eragiketa guztiak egiteko mantendu behar dituenak dira. Hauei dagokionez, lokal txiki bat alokatuko dugu donostiako auzo batean; Egian, garestiago atera dezan. Bertan, hilabete bakoitzean lortzen goazen dirua gorde eta bilerak egingo ditugu aste bukaeretan. Horrez gain, bakoitzak badu bere patinete elektrikoa edo bizikleta beraz, gelditzen zaigun gauza bakarra badaezpada furgoneta eta kotxe pare bat erostea da.

Baliabide intelektualak enpresaren barruan sortutako baliabide ukiezinak dira, baina ezin dira jabetza intelektual gisa erregistratu. Hauen barruan, bost langile izango gara eta dena denon artean kudeatuko dugu. Horretarako, gure enpresaren webgunea osatuko dugu eta bertan hitzordua eskatzeko aukera emango dugu nahiz eta gmailak eta telefono deiak ere eskuragarri izan bezeroentzat.

Giza baliabideei erreferentzia eginez, langile bakoitza donostiako edo donosti inguruko herri eta auzo ezberdinetan bizi garenez, bakoitza zona ezberdinetaz arduratuko da. Enpresa hazten bada, donostitik urrun bizi diren langileak kontratatzeke asmoa dugu gure zerbitzua gune gehiagotan eskaini ahal izateko.

Finantza-baliabideak enpresek beren inbertsioak, kapitala eta egungo jarduerak finantzatzeko behar dituzten funtsak lortzeko erabiltzen dituztenak dira. Hauei dagokionez, hasteko, falta zaigun garraio-bidea erosteko eta enpresan inbertitzeko 30.000 euroko mailegua eskatuko diogu bankuari. Gainera, preferentzia ez duten bezeroetan supermerkatu edo denda berdinetara joango gara bezero finkoak izateko eta, horrela, gurekin lankidetzan aritzeko eta hilaren amaieran diru kantitate bat lortzeko; horren truke publizitatea egingo diegu. Horrez gain, erosketa egun bakoitzeko 3 euro eskatu dizkiogu bezeroari. Azkenik, ONG ezberdinen eskuetatik ere diru laguntzak jasotzea espero dugu guk ere beraiekin kolaboratu ahal izateko.